



ZARAUTZ/
MOLLARRI/
ZARAUTZ

5.000m

Igerilariaren gida

ZMZ

Zarautz - Mollarri - Zarautz

Larunbata, 2025eko uztailaren 26a, 16:30ean

Distantzia: 5.000 m


Partaide kopurua: 400

PROGRAMA

Ostirala eta larunbata, uztailak 25 eta 26 Igerilariaren poltsa jasotzea  Ostirala 25: 12:00-20:00 Larunbata 26: 10:00-14:00*  Munoa Plaza, Zarautz	Derrigorrezkoa izango da NANA eta izen-ematearen baieztapena aurkeztea poltsa eta dortsala jasotzeko. Poltsa eta dortsala pertsonalki jasotzeko aukerarik ez balego, hirugarren pertsona batek jaso dezake, NANaren fotokopiarekin eta izena eman duen pertsonaren inskripzio-baieztapenarekin batera. *Izen-ematea egiteko garaian zerbitzu hau kontratatu dutenentzat soilik.
Larunbata, uztailak 26 Kontsigna: poltsak utzi/jaso   Munoa Plaza, Zarautz	Igerilariaren poltsan aurkituko duzuen zinta jarri beharko duzue kontsignan utziko duzuen motxilan. Zinta horrek dorsal zenbakia du, eta identifikazioa erraztuko du ARROPA GORDETZEKO ETA JASOTZEKO ORDUTEGIA Zarautz (Plaza Munoa): - Gorde: 14:00-etatik aurrera - Jaso: 20:00-ak arte
Larunbata, uztailak 26 Dorsal zenbakia markatzea   Munoa Plaza, Zarautz	Derrigorrezkoa izango da dortsala, sorbalda, omoplato eta esku bakoitzean markatzea. Markatzeko gunea Munoa plazan izango da, kontsignan. Txipari dagokionez, antolakuntzako boluntarioei eman behar zaie proba amaitu bezain laster, portuan bertan dagoen arrapalan.
Larunbata, uztailak 26 Probaren hasiera: 16:30etatik aurrera   Zarauzko portua, Munoa plazatik 5 minutura oinez	Irteera kamara 16:00etan irekiko da eta 16:30ean probaren irteera izango da Zarauzko portuan. Proba Zarauzko portutik hasiko da, Zarauzko hondartzaren paraleloan igerian (eskuinean 4 buia utzita), Mollarriko arroka inguratuz (4. buia eskuinean utzita) eta Zarauzko portuko arrapalan amaituz. Probaren irteeran kortxera bat jarriko da Mollarri norabidean, eta helmuga portuko sarreran olana gorri batekin seinalizatuta egongo da. Hornidura (ura) egongo da ibilbideko 2700m-etan, Mollarri buelta eman eta portuko norabidean igeri egiten hastean. Kontsigna, hornidura eta gainerako zerbitzuak Munoa plazan egongo dira.
Larunbata, uztailak 26 Sari banaketa: 18:00   Munoa Plaza, Zarautz	SARIAK - Gizonezko zein emakumezko kategoria bakoitzeko lehen 3 pertsonak. - Zarauzko (edo Zarautz Balea Igeriketa klubeko) lehen pertsona sailkapen orokorrean, gizon zein emakumezkoetan. - Kategoria absolutuko (ZMZ + GZ sailkapenetan) barne-ligako irabazleei eskudiruzko sari bat banatuko zaie (1. 1500€, 2. 1000€, 3. 500€). Hortaz gain, parteartzaile bakoitzak domina bat jasoko du. Partaidetza irekia da, lizentzia ez da derrigorrezkoa.

IBILBIDEA



ZARAUZKO PORTUA (irteera/helmuga puntua)**MUNOA PLAZA** (anoa-gunea, kontsigna)

ARAUDIA

Proban parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa da parte-hartzaile bakoitzak probaren araudia irakurtzea eta bertako klausula bakoitza betetzea.

1. EGUNA ETA LEKUA

2025eko uztailak 26, Zarautz-Mollarri-Zarautz (ZMZ)

2. ORDUA

ZMZ: 16:30 (irteera kamara 16:00etan)

3. PROGRAMA

3.1. Zarautz-Mollarri-Zarautz zeharkaldia: 16:30ean izango da irteera portuan.

3.2. Zarautz-Mollarri-Zarautz zeharkaldia (5.000m): Zarauzko portutik hasiko da, Zarauzko hondartzaren paraleloan igerian (4 buiak eskuinean utzita), Mollarriko arroka inguratu (4. buia eskuinean utzita) eta Zarauzko portuko arrapalan amaituz proba.

3.3. Parte-hartzaile bakoitzaren ERANTZUKIZUNA da beharrezko bitartekoak lortzea, irteeran behar den orduan izateko, erakundearen eta irteerako epaileen aginduetara.

4. PARTAIDETZA

4.1. Zarautz-Mollarri-Zarautz kategoriak:

- Kategoria absolutua.
- Zarauzko lehena (edo Zarautz Balera Igeriketa taldeko kidea).

4.2. Zeharkaldiak: Zarautz-Mollarri-Zarautz: 2011/12/31 edo lehen jaioak.

4.3. 2011. urtean jaiotako parte-hartzaileek zeharkaldietako edozeinetan parte hartu ahal izango dezakete, eurek nahi bezala.

4.4. E kategoriako parte-hartzaileek Gipuzkoako Foru Aldundiaren edozein igeriketa-modalitatetako eskola-lizentzia edo haurren zeharkaldian parte hartzeko federazio-lizentzia izan beharko dute.

4.5. Zarautz-Mollarri-Zarautz parte-hartzea irekia da, federazioaren lizentzia izateko inolako obligaziorik gabe.

5. "IGERILARIAREN POLTSA" JASOTZEA

5.1. Uztailaren 25ean dortsalak eta poltsa jaso ahal izango dira Munoa plazan 12:00etatik 20:00etara. Halaber, uztailaren 26an ere 10:00etatik 14:00etara jaso ahal izango dira Munoako plazan.

5.2. Derrigorrezkoa izango da NANA eta izen-ematearen baieztapena aurkeztea poltsa eta dortsala jasotzeko.

5.3. Poltsa eta dortsala pertsonalki jasotzeko aukerarik ez izanez gero, hirugarren pertsona batek jaso ahal izango du, NANaren fotokopiarekin + inskribatutako pertsonaren inskripzio baieztapenarekin.

6. IRTEERAK

5.000 metroko proba nagusia 16:30ean hasiko da Zarauzko portutik. Parte hartzaileek Zarauzko hondartzaren paraleloan igeri egingo dute, eskuinean lau buia utziz, Mollarriko arroka inguratu arte. Arroka inguratu ondoren (laugarren buia ere eskuinean utzita), abiapuntura itzuliko gara, eta portuko arrapalan amaituko dugu.

Ur Irekietako Igeriketa Egokituko EH/ESP Txapelketa

Bost minutu beranduago, 16:35ean, Euskadiko eta Espainiako Igeriketa Egokituko Txapelketako hiru proba hasiko dira aldi berean, 400 m, 800 m eta 5.000 m-ko distantziekin.

7. PROBA ETETEA, ZERO ARRISKU

7.1. Antolakuntzak ibilbidea aldatzeko, irteera-ordua atzeratzeko, data aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea gordetzen du. Irteera eman ondoren, proba egiten den bitartean bertan behera geratuko balitz ere, egindakotzat joko litzateke proba. Proba ezinbestean etengo balitz, ez litzateke inola ere inskripzioaren zenbatekoa itzuliko.

8. SAILKAPEN ETA SARIAK

8.1. Sari banaketa kategoria absolutuan bakarrik egingo da, Zarauzko lehen sailkatuaz gain.

8.2. Zarautz-Mollarri-Zarautz sari-banaketa arratsaldeko 18:00etan egingo da Munoa plazan.

9. ZIGORRAK ETA AZKEN OHARRA

9.1. Zarautz-Mollarri-Zarautzeko probak Getaria-Zarautzekoak baino arautegi handiagoa izango du, hau da, ESPAINIAKO KOPA RFEN eta FINA WORLD AQUATICS ARAUTEGIA.

ZARAUTZ, 2025.

Babesle nagusiak



Babesleak



Babesle Instituzionalak



Laguntzaileak

